

PROFILA

1. Euskara maila jaso.
2. Euskalgintzaren, herri-erakundeen eta hedabideen ezagutza (batez ere, Arabakoena).
3. Pertsona irekia (askotarikoen artean jarduteko erraztasuna) eta proaktiboa.
4. Askotariko jarduerak antolatzeko eta koordinatzeko gaitasuna.
5. Bulegoko lanak aitzinatzeko gaitasuna.
6. Informatika-jakintza egokia.

EGITEKOAK

A. Euskaltzaindiaren egitasmoekin zerikusia duten zereginak (dedikazioa: 2/3):

Egokitzen zaizkion egitasmoetan lan teknikoak eta harremanak egitea (egitasmoaren barneko kideen artekoak nahiz kanpokoak), baita kudeaketa eta koordinazio-lanak ere.

B. Arabako ordezkariarekin zerikusi zuzena duten zereginak (dedikazioa: 1/3):

- Bulegoko ohiko lanak aitzinatzea, jendearentzako arreta (telefonoz, posta elektronikoz eta aurrez-aurre) eta Arabako ordezkariaren egitekoetan laguntzea (jarraipena, dokumentazioa, gutuneria eta abar).
- Arabako euskaltzainekiko eta euskalgintzako kideekiko komunikazioa, Arabako ordezkariaren gidaritzapean.
- Ordezkaritzako erabilera anitzeko gelaren kudeaketa, Idazkaritzaren gidaritzapean.
- Harreman instituzionalei dagokienez, agenda kudeatzen laguntzea eta egin beharreko bilkuretarako deiez-eta arduratzea.
- Ordezkaritzaren eta Idazkaritzaren gidaritzapean, urteko plangintza kontuan hartuz, Araban egiten diren erakusketa, ikastaro, liburu-aurrezpen, bilkura (Osoko Bilkurak barne) eta bestelako jarduerak kudeatzea.
- Araban biltzen diren batzorde eta lantaldeei laguntza teknikoa ematea.
- Ordezkaritzako hornidurak, mantentzeak eta gastuak kudeatzea.
- Arabako Foru Aldundiari eta Gasteizko Udalari aurkezteko errendapen-txostenak egitea.
- Azkue Literatura sariak: Arabako ikastetxeekin harremanak landu haur eta gazteek literatura lehiaketan parte har dezaten.
- Komunikazio-lanak (Komunikazio arduradunari laguntzea deialdi eta prentsa-oharrak idazten); argazkiak ateratzea; dena delako ekitaldia izan ondotik, prentsan ateratako artikulua bildu eta prentsa arduradunarekin partekatzea.

PRESTAKUNTZA

- Zeregin guztietan, euskaraz jarduteko erabateko gaitasuna, ahoz nahiz idatziz. Ezinbestekoa da C1 maila izatea. C2 maila kontuan hartuko da.
- Unibertsitate-ikasketak aintzat hartuko dira.
- Beste lan batzuetan hartutako eskarmentua: testuen zuzentzaile, euskara teknikari, irakasle (irakaskuntza orokorrean zein hizkuntzen irakaskuntzan), itzultzaile...
- Frantsesez edota ingelesez jarduteko gaitasuna baloratuko da.

LAN-BALDINTZAK

- Hautatuari, lanaldi osoko lan-kontratua eskainiko zaio.
- Lanpostuak teknikari bati dagozkion kategoria eta lan-baldintzak izango ditu.
- Informazio gehiago hautagaiarekin izandako elkarrizketan emango da.

HAUTAKETA-PROZESUA

- Interesatuak bere CV-a eta motibazio-gutuna bidali beharko dute honako helbide elektronikora: info@euskaltzaindia.eus
- Epea: hautagaiak onartzeko epea maiatzaren 19an, 15:00etan, itxiko da. Epemuga honen ondoren jasotako hautagaitzak ez dira onartuko.

2025-04-30